

KANALAK

Gure produktuaren arrakasta bermatzeko, bezeroengana iristeko egokiena, karroak saltzen dituzten enpresekin harremanetan jartzea eta denda propioa edukitzea dela uste dugu, hau da, gure kanalak zuzenak zein zeharkakoak izango dira. Izan ere, bezeroekin aurrez-aurre hitz egitea ezinbestekoa iruditzen zaigu, konfiantza eta seriotasuna transmititzeko, horretarako gure denda propioa edukiko dugu eta guk ez ditugunez karroak fabrikatzen, karroak saltzen dituzten enpresekin jarriko gara harremanetan. Guk jaio berriek tenperatura egokia edukitzeko behar diren gauzak instalatuko ditugu karroan eta instalazio hauek gure dendan egingo dira ere. Gailu hauek instalatzeko karroak behar direnez, esan bezala, karroak saltzen dituzten enpresekin jarriko gara harremanetan. Geuk zuzenduko dugu denda eta gerora hedatzen joan ahala langile gehiago kontratatu beharko genituzke.

Hasieran, gure produktua ezagutzera emateko sare sozial, kale, aldizkari eta egunkarietan gure produktuaren aurkezpena egingo dugu.

Gaur egun sare sozialak duten indarra eztabaidaezina da, eta gure produktua ezagutzera emateko funtsezkoa izan daiteke. Gure webgunea edukiko dugu bezeroek gu ondo ezagutu nahi bagaituzte bertan behar duten informazio guztia eduki dezaten. Nortzuk garen, gure produktua zer beharretatik sortu den, enpresak produktu honekin lortu nahi duen helburua zein den, produktuaren funtzionamendu eta erabilgarritasuna nolakoa den, gurekin zuzenean nola kontaktatu... Behin enpresaren webgunea edukita, sare sozialetan, twitter, instagram, facebooken... gure produktua ezagutzera emango dugu berritzaile eta seguru bezala.

Gure bezeroak izan daitezken karro egile desberdinekin jarriko gara kontaktuan, gure sistema azalduko diegu eta beraiei gure proiektua egokia iruditzen bazaie bere karro desberdinetan ezarriko dugu gure sistema. Gure lokalera etortzeko aukera edukiko dute benetan gure produktuan interesatuta badaude. Guri eta gure sistemari buruz gehiago jakin nahi badute, dena argi eta garbi azalduko diegu. Dudaren bat geratzeko kasuan, web-orri bat zein sare sozialak ditugula jakinaraziko diegu eta bertan gure telefono zenbakia edukiko dute nahi dutenean deitzeko.

Produktu baten salmenta ez da bezeroak erosten duenean bukatzen, gailuaren txipen batek edo ez badu ondo funtzionatzen garantia bat izango du, 2 urtetakoa, eta arazo hau gure errua izango denez deitu besterik ez du egin behar erosleak, Ikerren furgonetaz baliatuko gara bere etxebizitzara joateko eta material guztiak leku batetik bestera garraiatzeko.

Behin sistema instalatuta, kontaktuan segituko dugu beraiekin, hau da, salmenta ondorengo praktikatuko dugu. Gure helburua bezeroa gure zerbitzuekin pozik egotea eta beraien erosketak merezi izana da.